

258

2021

MAIATZA
MAYO

berrittu

Urnietako Udalaren aldizkaria



**Erabaki zein parke edo plaza estali
eta zertara bideratu 150.000 euro**

Decide qué parque o plaza cubrir
y en qué invertir 150.000 euros

Parte hartze prozesuko karpak maiatzaren 14ean eta 15ean

Urnietako Udalak bi parte hartze prozesu jarri ditu abian aurten ere herritarrek entzun nahi dituelako. Bat, herriko zein plaza edo parke estaliko den erabakitzeko, eta bestea berriz, hurrengo urteko aurrekontuko 150.000 euro zertan gastatu zehazteko.

Bi prozesu horien gaineko aurkezpenak egin ostean, eta informazio liburuxkak etxeetara banatu eta gero, informazio karpak jarriko dira bi egunetan herritarren ekarpenak jasotzeko eta dituzten zalan-tzak argitzen laguntzeko.

- **Maiatzaren 14an:** 10:00etatik 14:30era Etxeberri plazan eta 17:00etatik 20:00etara Guria tabernaren inguruan.
- **Maiatzaren 15ean:** 10:00etatik 14:30era San Joan plazan.

Photocall

Maiatzaren 14an photocall bat egongo da informazio karpak. Bertan parte hartzen duten pertsonen argazki bat aterako zaie eta argazki hori eramango duen oroi-garri bat oparituko zaie.

Halaber, formularioak herriko puntu desberdinetan jarritako kutxa eta buzoietan entregatu daitezke, eta baita, webgunean eta APP-an bete ere. Urnietan erroldaturiko 16 urtetik gorako edonork har dezake parte.



LH6

Bestalde, Udalak parte hartze kultura herriko txikien artean errotzeko asmoa du pixkanaka. Orain arte parte hartze prozesuak 16 urtetik gorako urnietarrei bideratuta egon dira, baina aurten, ikastetxeen bitartez, Egape eta Magaleko lehen hez-

kuntzako seigarren mailako ikasleen ekarpenak jasoko dira aurrekontu irekien parte hartze prozesuan. Saio bereziak egingo dira beraiekin eta prozesu horretara bideraturiko 150.000 euroetatik 15.000 euro ikasleek gauzaturiko proposamenak egingo dira zuzenduko dira.

Las carpas del proceso participativo los días 14 y 15 de mayo

El Ayuntamiento de Urnieta ha puesto en marcha dos procesos participativos porque este año también quiere escuchar a la ciudadanía. Uno para decidir qué plaza o parque de la localidad se cubrirá y otro para determinar en qué invertir 150.000 euros del presupuesto del próximo año.

Tras las presentaciones de ambos procesos y el reparto de los folletos informativos a los domicilios, durante dos días se instalarán carpas informativas para recoger las aportaciones de la ciudadanía y para ayudar a resolver sus dudas.

- **14 de mayo:** de 10:00 a 14:30 horas en la plaza Etxeberri y de 17:00 a 20:00 horas en los alrededores del bar Guria.

- **15 de mayo:** de 10:00 a 14:30 horas en la plaza San Juan.

Photocall

El 14 de mayo habrá un photocall en la carpa informativa. A las personas que participen allí se les sacará una foto y se les obsequiará con un recuerdo que llevará esa fotografía.

Asimismo, los formularios se pueden entregar en las urnas y en los buzones colocados en diferentes puntos de la localidad. También se puede cumplimentar el formulario en la APP y en la web del Ayuntamiento. Pueden participar todas las personas empadronadas en Urnieta mayores de 16 años.

6ºEP

Por otro lado, el Ayuntamiento pretende arraigar la cultura participativa entre los y las pequeñas de la localidad. Hasta ahora los procesos de participación han estado orientados a las personas mayores de 16 años, pero este año, a través de los centros escolares, se recogerán las aportaciones del alumnado de sexto de primaria de Egape y Magale en el proceso de participación de los presupuestos abiertos. Para ello se realizarán sesiones especiales con los cursos referidos de los dos centros, y de los 150.000 euros destinados a este proceso 15.000 euros se utilizarán para llevar a cabo propuestas realizadas por el alumnado.



Zuzeneko okupazioaren espedientea lantzen jarraitzen da Egapeko DBH eraikina egiteko erabiliko diren lursailak lortzeko

Urnietako Udalak lanean jarraitzen du Egapeko DBH eraikina ahalik eta lasterren errealitate bihur dadin, eta martxoaren erdialdean hasitako okupazio zuzeneko espedientea garatzen jarraitzen du, zentroa erakiko den lursailak lortzeko.

Era berean, lursailak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari laga aurretik egin behar den urbanizazio-proiektua idazten ari da

Udala, prozesua ahalik eta gehien bizkortzeko.

Proiektua eta eraikuntza

Behin lurak Hezkuntza sailari lagata, sail horrek garatuko du proiektua eta egingo du eraikuntza. Horretarako, proiektuaren pleguak egin ditu, eta bertan jasotzen dira proiektuaren ezaugarriak eta Egape ikasto-

lak jakinarazitako beharrak.

Baldintza-agiri horiek oinarri hartuta, proiektua lehiaketara atera da, eta hautatutako enpresa arduratuko da idazteaz. Idazketa amaitu ondoren, beste agiri bat egingo da, kasu honetan obrarako, eta lehiaketaren barruan hautatutako enpresari esleituko zaio. Gero, azken urratsa iritsiko da, obararen hasiera, hain zuzen.

Se continúa trabajando en el expediente de ocupación directa para obtener los terrenos que se destinarán a construir el edificio de DBH de Egape

El Ayuntamiento de Urnieta continúa trabajando para que el futuro edificio de DBH de Egape se haga realidad lo antes posible y sigue desarrollando el expediente de ocupación directa iniciado a mediados de marzo para la obtención de los terrenos en donde se construirá el centro.

Al mismo tiempo, el consistorio está redactando el proyecto de urbanización que se tendrá que realizar antes de ceder los

terrenos al Departamento de Educación del Gobierno Vasco, para tratar de acelerar el proceso lo máximo posible.

Proyecto y construcción

Una vez cedidos los terrenos a Educación, será dicho departamento quién desarrollará el proyecto y llevará a cabo la construcción. Para ello, ya ha elaborado los pliegos del proyecto donde se recogen las características del mismo y donde están incorpo-

radas las necesidades comunicadas por parte de Egape ikastola.

Teniendo como base dichos pliegos se ha sacado a concurso el proyecto y la empresa seleccionada será la encargada de redactarlo. Tras finalizar la redacción se realizará un nuevo pliego, en este caso para la obra, que será adjudicada a la empresa que sea seleccionada dentro del concurso. Y luego, llegará el último y más deseado paso, el inicio de la obra.

Baratze ekologikoen esleipendunak beren lursailetan lanean ari dira dagoeneko

Baratze ekologikoak esleitzeko prozesua apirilaren hasieran amaitu zen, eta esleipendunak lanean ari dira beren partzeletan, dagokien fidantza ordaindu eta Bertan bulegoan txabolako eta armairuko giltzak jaso ondoren.

Eman zaien lizentzia automatikoki berrituko da urtero, gehienez 4 urteko iraupenarekin, eta, horretarako, urteko kuota bat ordaindu beharko dute. Aurten, erabiltzaile orokorrek 50 euro ordaindu beharko dituzte, familia ugaria dutenek 25 euro eta langabezia daudenek ostera, 10 euro.

Ohitura osasungarriak bultzatzea

Urnieta, Kutxa Ekogunea abian jarritako Baratze Parke sarera batu zen 2016. urtean elikadura eta ohitura osasuntsuak sustatzearen aldeko apustua eginez eta herritarrei norberaren barazkiak era ekologikoan egiteko aukera eskainiz.

Baratze Parkeko lursailen emaitzak auto-hornikuntzarako erabiliko dira. Hau da, lurraren fruituak, baratzen laborantzak emanak, norberaren kontsumorako izango dira, inolako etekin ekonomikorik jasotzeko aukerarik izan gabe.



El proceso de adjudicación de las huertas ecológicas finalizó a principios del mes de abril y las personas adjudicatarias ya están trabajando en sus parcelas tras abonar la fianza correspondiente y después de recoger las llaves de la chabola y de la taquilla en Bertan.

La licencia que se les ha concedido se renovará automáticamente cada año con una duración máxima de 4 años, y para ello tendrán que pagar una cuota anual. Este año las personas usuarias generales deberán abonar 50 euros, las que tengan familia numerosa 25 euros y las que estén en paro por su parte, 10 euros.

Objetivo impulsar hábitos saludables

Urnieta se unió a la red Baratze Parkea puesta en marcha por Kutxa Ekogunea en el año 2016, realizando una apuesta por los hábitos alimentarios saludables. De esta forma, ofrece a la ciudadanía la posibilidad de cultivar verduras de manera ecológica.

Los productos que se obtengan de estos huertos serán de autoconsumo. Es decir, los cultivos serán para consumo propio, nunca con el fin de obtener beneficio económico de ellos.



Igerilekuko instalazioen eraikina prest izango da Udako denboraldirako

Kiroldegiaren eraberritzearekin lotuta, igerilekuko instalazioen eraikin berria eraikitzen ari da Udala, izan ere, instalazio hori eraitsi egin den eraikinaren barruan aurkitzen zen.

Lanak urtarrilean hasi ziren eta ekainerako amaituta egongo dira. Beraz, udako denboraldian igerilekua normaltasunez erabiltzeko aukera egongo da, betiere Covid 19k baldintzatutako egoera epidemiologikoak horretarako aukera ematen badu.

El edificio de las instalaciones de la piscina estará finalizado para la temporada de verano

Unida a la reforma del polideportivo, se está llevando a cabo la construcción del edificio adjunto de las instalaciones de la piscina, ya que dicha instalación se encontraba dentro del edificio que ha sido demolido.

Los trabajos comenzaron en enero y estarán finalizados para junio, de manera que en la temporada de verano la piscina se podrá utilizar con normalidad, siempre y cuando la situación epidemiológica condicionada por la Covid 19 lo permita.

APP-aren albisteen eta agendaren atalen diseinua aldatu da, erakargarriagoa eta ikusgarriagoa eginez

Urnietako Udalak APPko agendaren atala berri du, erakargarriagoa eta ikusgarriagoa eginez diseinuari dagokionez. Gauza bera egin zen apiril hasieran albisteen atalarekin ere. Aldaketa horiekin garrantzi handiagoa eman zaie argazkiei, kontuan hartuta hori dela plataformara sartzera koan ikusten dugun lehen gauza. Horrela, mezuen argitasuna areagotu nahi da ikusizko komunikazio deigarriago baten bidez.

Urnietari buruzko informazio guztia eskura


Teknologiaren aroan bizi gara, eta smartphone-ak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira gure bizitzan, eskaintzen dizkiguten aukera guztiei esker, ia dena eskura izan baitezakegu klik gutxi batzuetan beraiei esker.

Errealitate horretaz jabetuta, Urnietako Udalak APP bat garatzea eta herritarren eskura jartzea erabaki zuen 2017an, herriko informazio garrantzitsuena modu argi, zuzen eta errazean emateko.

Erabiltzaileen kopuruak gora egin du nabarmen

Harrera bikaina izan zuen APP-ak eta urtez urte erabiltzaile kopurua handitzen joan da. Hainbat atal ditu. Alde batetik, Udalak egiten duen guztiaren berri izateko balio duten albisteak daude. Agendak berriz, hila bakoitzean eskaintzen diren jarduerak ezagutzeko aukera ematen du. Halaber, kulturak, kirolak, garraioak eta zerbitzu soziosanitarioek beren lekua dute. APParen bidez, programatzen diren ikuskizunetarako sarrerak ere eros daitezke eta kiroldegira kirola egitera joateko online hitzorduak hartzeko aukera dago.

Bestalde, aplikazioa herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna ere bada. Izan



ere, intzidentzien atalaren bidez, hobetu daitezkeen guztiaren berri eman dakioko Udalari. Horretarako, argazki bat, deskribapen txiki bat eta proposatutako hobekuntzaren kokapen zehatza sar daitezke. Era berean, prozesu parte-hartzaileak gaitzen direnean, urnietarrei bozkatzeko edo proposamenak egiteko aukera ematen zaie, horretara bideraturiko atal espezifikoaren barruan.

Se ha modificado el diseño de las secciones de noticias y agenda de la APP haciéndola más atractiva y visible

El Ayuntamiento de Urnieta ha renovado la agenda de su APP haciéndola más atractiva y visible en cuanto a diseño. Se hizo otro tanto de lo mismo con el apartado de noticias a principios del mes de abril. Con estos cambios se ha dado más importancia a las fotografías teniendo en cuenta que es lo primero en lo que nos fijamos a la hora de acceder a la aplicación. Así, se pretende aumentar la claridad de los mensajes mediante una comunicación visual más llamativa.

Toda la información sobre Urnieta a mano

Vivimos en la era de la tecnología y los smartphones cada vez están adquiriendo

más relevancia en nuestras vidas gracias a todas las posibilidades que nos ofrecen permitiéndonos tener prácticamente todo a mano en unos pocos clics.

Siendo consciente de esta realidad el Ayuntamiento de Urnieta decidió desarrollar y poner a disposición de la ciudadanía una APP en el año 2017 para ofrecer la información más relevante de una manera, clara, directa y sencilla.

Las personas usuarias han aumentado significativamente

La APP que tuvo una magnífica acogida y que ha ido aumentando año a año el número de personas usuarias dispone de diversos apartados. Por un lado, están las noticias que sirven para estar al tanto de todo lo que hace el consistorio. La agenda permite conocer de primera mano las actividades que se ofrecen a lo largo de cada

mes. Asimismo, la cultura, el deporte, el transporte y los servicios sociosanitarios tienen su propio espacio. A través de la APP también se pueden comprar las entradas para los diferentes espectáculos que se programan y se permite coger las citas online para acudir a practicar deporte al polideportivo.

Por otro lado, la aplicación es una herramienta que fomenta la participación ciudadana, ya que mediante el apartado de incidencias se puede notificar al Ayuntamiento de todo lo que se estime mejorable. Para ello, se puede introducir una foto, una pequeña descripción y la ubicación exacta de la mejora propuesta. Del mismo modo, cuando se habilitan los procesos participativos, a los y las urnietarras se les permite votar o realizar propuestas dentro del apartado específico creado para ello.

Karmele Mitxelena, Irati Etxeberria e Irene Albizu se llevan los premios principales del concurso literario Antia

El reparto de premios de la edición XXVII del concurso literario On Manuel Antia se celebró el 25 de abril en Sarobe, donde los premios principales fueron para Karmele Mitxelena, Irati Etxeberria e Irene Albizu.

El acto lo presentó Lorea Intxausti, y estuvo amenizado con música y danza. Por lo que respecta a la música, se pudieron escuchar las melodías de Ana Belen Garcia, Thierry Biscary y Mixel Ducau. En cuanto a la danza, actuaron los componentes de la compañía de danza Aukeran.

Estas han sido las personas premiadas de esta edición:

Categoría infantil

- 1er premio (una tablet): Irene Albizu Medrano por la redacción "Ortzadar berri bat".
- 2º premio (un ebook): Nina Lopez Rodriguez por la redacción "Argazki kamera".
- 3er premio (un ebook): Iker Aranburu por la redacción "Iggailu zoroa".

Categoría juvenil

- 1er premio (500 euros): Irati Etxeberria Lasa por la redacción "Galtzearen alde onak".
- 2º premio (300 euros): Maddi Arrieta Etxeberria por la redacción "Igerileku azpiko munstroa".
- 3er premio (150 euros): Eider Lizaso Lopez por la redacción "Basamortuko etxea".

Categoría adulta

- 1er premio (1.800 euros): Karmele Mitxelena Etxebeste por la redacción "Zena".
- 2º premio (1.000 euros): Igor Mercado Azcuenaga por la redacción "Arnasguneak".



Karmele Mitxelenak, Irati Etxeberriak eta Irene Albizuk irabazi dituzte Antia literatur lehiaketako sari nagusiak

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXVII. edizioako sari banaketa ekitaldia apirilaren 25ean ospatu zen Saroben eta Karmele Mitxelenak, Irati Etxeberriak eta Irene Albizuk irabazi zituzten sari nagusiak.

Ekitaldia Lorea Intxaustik aurkeztu zuen, eta musika eta dantza ikuskizunez girotuta egon zen. Musikari dagokionean Ana Belen Garcia, Thierry Biscary eta Mixel Ducaren doinuak entzuteko aukera izan zen. Dantzariak berriz, Aukeran Dantza Konpainiakoak izan ziren.

Hauak izan dira aurtengo sarituak:

Haurren kategoría

- 1. Saria (tablet bat): Irene Albizu Medrano "Ortzadar berri bat" idazlanarengatik.
- 2. Saria (ebook bat): Nina Lopez Rodriguez "Argazki kamera" idazlanarengatik.

- 3. Saria (ebook bat): Iker Aranburu "Iggailu zoroa" idazlanarengatik.

Gazteen kategoría

- 1. Saria (500 euro): Irati Etxeberria Lasa "Galtzearen alde onak" idazlanarengatik.
- 2. Saria (300 euro): Maddi Arrieta Etxeberria "Igerileku azpiko munstroa" idazlanarengatik.
- 3. Saria (150 euro): Eider Lizaso Lopez "Basamortuko etxea" idazlanarengatik.

Helduen kategoría

- 1. Saria (1.800 euro): Karmele Mitxelena Etxebeste "Zena" idazlanarengatik.
- 2. Saria (1.000 euro): Igor Mercado Azcuenaga "Arnasguneak" idazlanarengatik.

JOKIN LIZEAGA: "jendearen maitasunak eta berotasunak edozein garaipenek baino gehiago ematen dit".



Hiru urte igaro dira Jokin Lizeaga mendiko korrikalari urnietarra Asturiasko lasterketa batean 20 metroko zulo batera erori zenetik. Zorionez gertaera latz hartatik bizirik irtetea lortu zuen. Ordutik, gogor lan egin behar izan du muturreko egoera hark eragindako ondorio fisikoak eta psikologikoak atzean uzteko, baina bere ibilbideko lasterketarik gogor eta zailena gainditu ondoren, berriro ere korri egitera bueltatu zen apirilaren 17an, ekitaldi polit eta hunkigarri batean eta herritarren babespean. Orain, aurrera begiratu nahi du eta gehien gustatzen zaionaz gozatzen jarraitzeko ilusioa du.

Egun berezia izan zen zure itzulerakoa, nola bizitu zenuen?

Egun borobila izan zen. Ibilbidea gustura eta pozik egin nuen zaleekin feedback-a izateko aukera edukiz, eta gero plazan horrenbeste jende ikustea oso polita izan zen. Herriari, familiari eta lagunei eskerrak emateko ekintza bat zen hiru urte hauetan eman didaten babes eta animo guztiagatik. Bestalde, Urnietan ditugun natura altxorrek Euskal Herrira zabaltzeko aukera ona zela uste nuen.

Momentu oso hunkigarriak bizitu ziren.

Jendea emozionatu egin zen. Herritar asko sufritu dudaren jakitun dira, istripua larria izan zelako, ondorioak larriak direlako eta denbora honetan jarraituriko prozesua oso gogorra izan delako.

Garaipen handi batek baina zapore gozoagoa utziko zizun agian jendaren berotasun horrek.

Ni garaipen zalea naiz eta horretarako entrenatzen dut, baina garaipenez haratago badaude gauzak. Jendearen maitasunak eta berotasunak esaterako, edozein garaipenek baino gehiago ematen dit. Profesionala izango banintz agian garaipenek

arlotan ekonomikoan beste eragin bat izango lukete, baina gurean garaipenek ez dute bizitza aldatzen. Horrelako keinuek berriz, bizitzeko modua eta ilusioa aldatzen dute.

Ziurrenik denbora ez zen garrantzitsuenaz izango, baina marka ona izan zen eta konfidantza hartzeko balioko zizun.

Gustura geratu nintzen denborarekin. Ibilbidea gogorra eta luzea zen. Ni oso positiboa naiz eta iluntasunean ere argia ikusi zalea naiz, baina azken urteetan momentu ezkorrek baikorrak baino gehiago izan dira, oinazeek eta arazoek korri eta bizitza normala egiteko orduan eragozpenak jarri dizkidatelako. Errealitate horrekin buruak buelta asko ematen ditu. Plazara irteteko gai izatea handia izan zen niretzat eta ondo bukatzea ere bai.

Oihartzun handia sortu zen zure itzulerarekin eta hori kudeatzea ez zen erraza izango.

Aldizkariak, egunkariak, telebista... leku askotatik deitu didate eta Euskal Herriko prentsa osoan atera naiz. Historia sakona da kirolaz haratago. Bizitza eta heriotzaren binomio horrek zeresana ematen du eta gertatutako eta pasatutako guztia kontatzeko arazorik ez daukat. Horrek interesa sortu zuen eta jendearen jakinmina handia zen.

Nola gogoratzen duzu erorketaren eguna? Argi dago zorizaiztoko eguna izan zela, baina era berean zorionekoa ere bai.

Gertuago egon nintzen heriotzetik bizitzatik baino. Halere, orain hemen nago, pozik nago eta osasuntsu nago, eta hori baloratu egin behar da. Ondorengo prozesua gogorra izan da, baina arlo positiboa hartuta gauza asko erakutsi dizkit. Bizitzako baloreak zeintzuk diren argi eta garbi asimilatzeke denbora izan dut.

Pertsona moduan garatzeko balio izan dizu hortaz.

Lehen ere, zorionez, baloratzen nituen benetan inporta duten gauzak. Kirol errendimenduan erraztasuna nuen emaitza onak lortzeko, baina argi nuen guztia ez dela az-

ken emaitza, gauza askoz ere garrantzitsuagoak baitaude. Orain argiago ditut gauza horiek. Momentuak bizitzen eta baloratzen jakin behar da istripuak eta zorizaiztaz edozein unetan gerta daitezkeelako. Denok ditugu kezak eta arazoak, baina erlatibizatu egin behar dira. Gu aberatsak gara, osasuna daukagu, jana eta loa baditugu eta etxea 20 gradutara mantentzen dugu urte osoan zehar.

Zein ondorio utzi dizkizu erorketak?

Nerbio optikoan degenerazio bat izan nuen eta tenperatura igo ahala bista galtzen dut ezkerreko begian. Dagoeneko ohitu naiz, beste begitik ikusten dut eta aurrera egin behar da. Aldapa behera ez da erraza eta euria edo lainoa daudenean gehiago kostatzen zait. Bestalde, hanka azpia eta orkatila geratu zaizkit oinazekin, baina ohitu egin naiz minarekin korritzera. Okerrera ez doan bitartean pozik.

Muturreko egoera hura bizi izanak psikologikoki ere eragina izango du ezta?

Orain beldurtiagoa naiz. Altuerarekin gorputza uzkurdu eta tentsionatu egiten zait, segurtasun eza sortzen zait eta erorketarekin loturiko pentsamenduak etortzen zaizkit. Orain arte ez dut lortu pentsamendu horiek guztiak kentzea eta etxetik gertu ibiltzen naiz. Aspaldian ez dut mendi garairik edo arriskutsurik igo. Pixkanaka aurre egin beharko diet beldur horiei, mendiaz gozatzen jarraitu nahi dudalako.

Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Aurreko asteburuan Espainiako txapelketan lehiatu zinen. Munduko Txapelketara bueltatzeko asmoa duzu?

Desio bat bihurtu zitzaidan lehiaketara bueltatzea eta lehen egiten nuen berriro egitea. Ez dakit gorputzak zenbat iraugo duen krisirik izan gabe, baina hori gertatu arte lehiari ibiltzen saiatuko naiz aurretik eta Munduko Txapelketako probetan parte hartzeko asmoa dut. Ekainaren 6an Austriaren izena emana daukat. Ez dakit zein maila emango dudan, baina jarraikortasuna izatearekin konformatzen naiz.


Urnietako Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko bidean herritarren ekarpenak jasotzeko saioa

Urnietako Udalak urteak daromatza berdintasun politikak garatzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean urrats sendoak ematen jarraitzeko. Norabide horretan sakontzeko Berdintasunerako II. Plana izan du bide-orri azken urteetan. Plan horren indarraldia amaitu berri da, eta orain, hurrengo urteetarako gidalerro izango den III. Berdintasun Plana diseinatzeko lanean ari da.

Horretarako, bigarren plana eta azken urteetako lana ebaluatuko dira eta etorkizuneko erronkak identifikatuko dira.

Parte hartze prozesua

Aipaturiko guztia aurrera eramateko prozesu parte hartzaile bat jarri du abian Udalak Elhuyarren laguntzarekin. Hasteko, ordezkari politikoei prozesuaren berri emateko eta haien ekarpenak jasotzeko saio



bat egin zen. Ondoren, udaleko sail desberdinetako teknikariekin galdetegi bat eta elkarrizketa erronda bat egin ziren sail bakoitzaren egoera ezagutzeko.

Horren ostean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean, feminismoaren alorrean zein indarkeria matxistaren esparruan zeresana duten hainbat kolektibo edota pertsona-talde ezberdinekin hitzorduak egin dira talde-elkarrizketak burutuz eta beraien ikuspegiak jasoz.

Prozesuaren fase hau borobiltzeko, gaian interesa duen herritar orori zein herriko elkarte guztiei irekitako saio bat antolatuko da, herriko errealitatearen alderdi ezberdinak aztertu eta lehenasunezko erronkak identifikatzeko. Saioa maiatzean izango da eta Udalak herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu. Eguna eta ordua zehaztean jakinaraziko da hitzordua. Bertan, parte hartzeko dinamika desberdinak egingo dira bertaraturikoen ekarpenak eta ikuspegiak jaso ahal izateko.

Berdintasun teknikaria

Bestalde, nabarmendu behar da Berdintasunerako eta zeharkako gaietarako teknikari bat kontratatu duela Urnietako Udalak eta dagoeneko lanean hasi dela. Kontratazio honekin aurrerapauso kualitatibo bat emango da plana bera garatzeko eta aurrera eramateko oinarritzko figura izango delako eta egunerokoan egiten diren politika eta ekintzetan genero ikuspegia barneratzen jarraitzeko funtsezko ekarpena egingo duelako.

Sesión para recoger las aportaciones de la ciudadanía dentro del proceso de elaboración del III Plan de Igualdad de Urnieta

El Ayuntamiento de Urnieta lleva años impulsando y desarrollando políticas de igualdad para continuar dando pasos firmes en la consecución de la igualdad entre mujeres y hombres. Para profundizar en esta dirección se ha utilizado como hoja de ruta el II. Plan de Igualdad durante los últimos años. Acaba de finalizar la vigencia de este plan, y ahora, se está trabajando para diseñar el III. Plan de Igualdad que marcará las directrices a seguir durante los próximos años. Para ello, se evaluará el segundo plan y el trabajo de los últimos años y se identificarán los retos de futuro.

Proceso participativo

Para desarrollar el trabajo el Ayuntamiento ha puesto en marcha un proceso participativo con la colaboración de Elhuyar. Para empezar, se realizó una sesión para informar a los representantes políticos del proceso y recoger sus aportaciones. Posteriormente, se realizó un cuestionario y una ronda de entrevistas con el personal técnico de los diferentes departamentos municipales para conocer la situación de cada uno.

También se han mantenido citas con diferentes colectivos y grupos que trabajan en los ámbitos de la igualdad de mujeres y hombres, el feminismo y la violencia machista, a través de entrevistas grupales con el objetivo de recoger sus puntos de vista.

Para redondear esta fase del proceso, se organizará una sesión abierta a toda la ciudadanía interesada en el tema así como a todas las asociaciones locales, para analizar

los diferentes aspectos de la realidad de la localidad e identificar los retos prioritarios de cara al futuro. La sesión se desarrollará en mayo y el Ayuntamiento anima a toda la ciudadanía a participar. En cuando se concreten el día y la hora se darán a conocer. En la sesión se realizarán diferentes dinámicas de participación para poder recoger las impresiones de las personas asistentes.

Técnica de igualdad

Por otro lado, hay que destacar que el Ayuntamiento de Urnieta ha contratado a una técnica de Igualdad y de temas transversales que ya ha empezado a trabajar. Con esta contratación se va a dar un paso cualitativo porque va a ser un apoyo extra para el desarrollo del propio plan y porque va a contribuir sustancialmente a seguir incorporando la perspectiva de género en las políticas y acciones que se realizan en el día a día.



Urnietako Udalak garapen programak garatzen lagunduko du Kuban, Saharan eta Guatemalan

Urnietako Udalaren eta Euskal Fondona elkartearen arteko hitzarmenari esker garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten programak garatuko dira Kuban, Saharan eta Guatemalan.

Herrialde horietan garapen ekonomiko eta sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatzea da helburua.

Udalak 2021. urtean lagunduko dituen proiektuak eta bakoitzera bideratuko dituen diru kantitateak ondokoak dira:

- **Kuba:** Habanako erdigune historikoan historialarien bulegoak adineko pertsonen arretarako duen programa sendotzea. **5.471 euro**
- **Sahara:** Garraio-azpiegitura laguntzea: Smarako gasolindegia handitzea. **5.471 euro**
- **Guatemala:** Artikulazio instituzionala eta sare sozialak, indarkeriarik gabe bizitzeko III fasea. **5.471 euro**

El Ayuntamiento de Urnieta ayudará a desarrollar proyectos de desarrollo en Cuba, Sahara y Guatemala

Mediante el convenio firmado entre el Ayuntamiento de Urnieta y Euskal Fondona se desarrollarán programas relacionados con la Cooperación al Desarrollo en Cuba, Sahara y Guatemala.

El objetivo es promover en estos países proyectos y programas de desarrollo económico y social o de sensibilización.

Estos son los proyectos que el Ayuntamiento ayudará en 2021 y las cantidades que destinará a cada uno de ellos:

- **Cuba:** Fortalecimiento de los programas de atención a las personas mayores que desarrolla la oficina del historiador en el centro histórico de la Habana. **5.471 euros**
- **Sahara:** Ayudar en la infraestructura de transporte: rehabilitación y ampliación de la gasolinera de Smara. **5.471 euros**
- **Guatemala:** Articulación institucional y redes sociales para vivir sin violencia Fase III. **5.471 euros**

Jarraipena odol-emaileekin dagoen lankidetzari

Udalak odol-emaileak elkartearekin elkarlanean jarraituko du burutzen duen osasun eta gizarte lanaren garrantzia aintzat hartuta. Sinatutako hitzarmenaren bidez, Udalak Lekaio kultur etxeko erabilera anitzeko gela utziko dio elkarteari eta 1.300 euroko diru-laguntza emango dio 2021ean, odola

ematen duten pertsoneri saioen ostean ogitarteko bat eta ura banatzeak eragiten dien gastuari aurre egin ahal izateko.

Elkartek odola ateratzeko sei kanpaina egingo ditu Urnietan aurtun, eta sentsibilizazio-kanpaina bat gauzatuko du udalerriko ikastetxeetan.

Continuidad a la colaboración con los donantes de sangre

El Ayuntamiento continuará colaborando con la asociación donantes de sangre teniendo en cuenta su importante labor sanitaria y social. A través del convenio firmado el consistorio cederá a la asociación la sala polivalente de la casa de cultura Lekaio y subvencionará a la asociación con 1.300 euros en el año 2021 para que pue-

da hacer frente al gasto derivado de proporcionar a las personas que participan en las extracciones de un bocado y agua.

La asociación llevará a cabo seis campañas de extracción de sangre en Urnieta durante este año, y además, realizará una campaña de sensibilización en los centros escolares del municipio.

Egape Ikastola

Txoribox proiektua 6. mailan

Egape Ikastolak urte luzeetan Agenda 30 proiektuan parte hartu du, ingurumenaren aldeko konpromezua agertuz eta eskola jasagarria helburu izanik. Horregatik, gure neska-mutilei ondare naturala babestu eta zaintzeko interesa pizten saiatzen gara. Aurten, hainbat ekintza antolatu ditugu, zuhaitzen landaketa, Berrasoeta parkearen azterketa eta Txoribox proiektua, besteak beste.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia Sailak hegaztien ezagutzarekin lotura duen ingurumen heziketa proiektu bat jarri du abian, Txoribox proiektua. Heziketa proiektu honen helburu nagusia gizartea, eta bereziki ikasleak, naturaren eta faunaren ezagutza, kontserbazioa eta ikerkuntzaren garrantziaz jabetzea da. Udaberriaren etorrerarekin batera, Aranzadiko ki-deak etorri zaizkigu ikastolara eta 6. mailako ikasleek hegaztien inguruko zenbait azalpen jaso dute.

Gure inguruan dabilzan hegazti eta txoriei buruz hainbat irudi, kontu eta doinu erakutsi dizkigute, eta jolasean ere ibili gara hegaztien izenekin eta berezitasunekin. Ondoren, ikasle bakoitzak bere txori



jantokia sortu du, material birziklagarria erabiliz. Begiraleek ekarritako bi jantoki polit ere ikastolako aurrekaldeko zuhaitzetan kokatu ditugu eta honela, hurbiltzen zaizkigun hegaztien jarraipena egiteko aukera dugu.

Zaindu ditzagun jantokiak eta nola ez, gure inguruko txoriak eta ea gure ikastola txorien pausaleku bihurtzen den!!!

Egape Ikastola viene participando desde hace muchos años en el proyecto Agenda 30, mostrando así su compromiso con el medio ambiente. De esta forma, este curso hemos organizado diversas actividades, entre las que destacamos la plantación de árboles en el municipio, el análisis del parque de Berrasoeta y el proyecto Txoribox.

El Departamento de Ornitología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ha puesto en marcha, el proyecto Txoribox. El objetivo principal de este proyecto educativo es concienciar a la sociedad de la importancia del conocimiento, conservación e investigación de la naturaleza y la fauna. Varias personas expertas de Aranzadi han proporcionado al alumnado de 6º curso diversas explicaciones sobre las aves: imágenes, nombres, melodías y curiosidades de las aves que viven en nuestro alrededor.

Posteriormente, todo el alumnado ha creado su propio comedero de pájaros empleando material reciclable y, finalmente, hemos colocado dos bonitos comederos en la Ikastola.

Magale Ikastetxea

'Elkartasunaren bidean' ekimena: etorkinei lagunduz, ikasi

Gizartea, teknologia eta erlijioa irakasgaiak jorratzen ditu 'Elkartasunaren bidean' diziplina anitzeko proiektuak. Hala, DBH3ko ikasleek kamiseta bat egin dute prozesuaren fase guztiak landuz ikastetxean, enpresabaten antzera. Etorkinak aurrez aurre ezagutuko eta euren historiak entzungo dituzte, Amher elkartearen bitartez. Helburua: kamiseten salmentaz mila euro biltzea.

"Proiektuaren bitartez balioak lantzea da oinarria. Baita jendarteari zerbitzu bat ematea ere", azaldu du Asier Irazusta Magale Ikastetxeko teknologia irakasleak. Hori dela eta, gizartea, teknologia eta erlijioa irakastegien artean lantzen duten ekimenean dira DBH3ko ikasleak buru-belarri. 'Elkartasunaren bidean' izena du diziplina anitzeko proiektuak.

"Hiru irakasgai batu ditugu eta ekimena elkarrekin lantzen ari gara. Horretarako, kurrikulumean azaltzen diren atalak jorratzen ari dira, honako testuinguru honetan: gaur egungo egoeran kokatu ditugu ikasleak,



gurera etorkin ugari datozela azalduta", dio Irazustak.

Honez gain, etorkinen egoera sozio-ekonomikoa ikertu dute, herrialde horiek dituzten ezaugarriak arakaturik. Baita erlijioa ere. "Herrialde horietan asko baldintzatzen duenez erlijioak bizitza, bertako erlijioa aztertu dugu", dio. Hala, migrazioa zergatik ari den gertatzen ikertu dute, etorkinen herrialdeotako egoera aztertuz. Baina xede nagusia argia da: kanpotik datozen pertsonak lagundu.

Horretarako, teknologian kamiseta bat prestatu dute, hainbat diseinuren artean bat

aukeratuz. "Orain, enpresa batean bezala, prozesuko atal guztiak landuz ekoiztuko dituzte eta salmenta prozesu bati ekin. Helburua mila euro eskuratzea da. Izan ere, aurtengo kurtsoan Hernanin dagoen Amher elkarteari emango diogu laguntza", azpimarratu du Irazustak.

Hala, euren bitartez, ikasleak taldeka elkartuko dira jatorri anitzeko etorkinekin, zuzenean ezagutu ditzaten: zerk bultzatu zituen Euskal Herrira etortzea, nolakoa zen euren bizimodua han... Zehazki, honakoak dira jatorriak: Ekuatore Ginea, Uganda, Mongolia, Uzbekistan, Kashmir, Maroko, Etiopia eta Kamerun.

Honenbestez, laster kamisetak salmentan jarriko dituzte ikasleek. Horretarako, blog bat prestatzen ari dira (elkartasunaren-bidean.blogspot.com), baina zuzenean, kamisetak email bidez eskatzea duzue: elkartasunarenbidean@gmail.com. Laguntzeko, elkartasunaren bideak urratzea ezinbestekoa baita. Eta ikasiz bada, askoz hobe.



Urnietako Frontoiko taberna-jatetxea alokatzeko eskaintzak aurkezteko epea irekita dago eta maiatzaren 19an amaituko da

Urnietako Udalak Frontoiko taberna-jatetxea alokatzeko aukera eskainiko du lehia-keta bidez. Horretarako, interesa dutenek maiatzaren 19 arte dute eskaintzak aurkezteko epea Bertan herritarren arretarako bulegoan.

Eskatzen diren baldintzak bete eta dokumentazioa guztia epe barruan aurkeztu duten hautagaietatik ondorengo iriz-

pideetan puntuazio handiena lortzen duenari esleitu zaio taberna-jatetxea:

- Eskaintako errenta (90 puntu).
- Inbertsioak ekipamenduan eta altzarian (10 puntu).

Interesa duten pertsonen informazio guztia eskura dute Urnietako Udalaren webgunean, eta edozein zalantza izanez gero, deitzeko aukera dute.

Está abierto el plazo para presentar las ofertas para alquilar el bar-restaurant del Frontón y expira el 19 de mayo

El Ayuntamiento de Urnieta va a ofrecer la posibilidad de alquilar el bar-restaurant del Frontón mediante concurso. Las personas interesadas pueden presentar sus ofertas hasta el 19 de mayo en la oficina de atención ciudadana Bertan.

Entre las personas que cumplan los requisitos exigidos y hayan entregado toda la documentación en regla y dentro del periodo establecido, se adjudicará el alquiler del bar restaurante a quien haya obtenido la puntuación más alta en los siguientes puntos:

- Renta ofertada (90 puntos).
- Inversiones en equipamiento y mobiliario (10 puntos).

Las personas interesadas tienen toda la información a mano en la página web del Ayuntamiento y en caso de tener cualquier duda pueden llamar para solventarla.

URNIETAKO KZ-GUNEA

943 023 682 · www.kzgunea.eus

MAIATZAKO ORDUTEGIA HORARIO DE MAYO

16:00-20:00

ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LUNES A VIERNES

Komunitate birtualak:

Zure elkartearen doako webgunea sortzeko aukera eskaintzen dizugu.

IT Txartela:

Teknologia berrien gaineko ezagupideen egiaztapena.

IKASTAROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):

Oinarrizko Internet: Internet mundua, PC bat ezagutu, nabigazioa, posta elektronikoa... eta gehiago.

Software libre: ofimatika mundua, software librearen baldintzak, baimenak eta abar.

Sare Sozialak 2.0: sare ezberdinak erabiliz, komunikatu eta zure dokumentuak konpartitu.

Irudia: imaginazioa esna ezazu grafiko aplikazioak erabiliz.

Google Apps: zure eta zure enpresaren antolakuntza errazteko tresnak.

Smartphoneak eta tabletak: zure gailuak eta aplikazio ospetsuenak erabiltzen ikasi.

Programazioa eta garapena: programazio tresnak erabiltzen ikasi.

Comunidades virtuales:

Te ayudamos a crear una página web gratuita para tu asociación.

IT Txartela:

Certificación de conocimientos en nuevas tecnologías.

CURSOS (DE LUNES A VIERNES):

Internet básico: entra en el mundo de Internet; qué es un PC, correo electrónico... y mucho más.

Software libre: ofimática, características del software libre, tipos de licencias, etc.

Redes Sociales 2.0: comunícate y comparte tus documentos a través de las diferentes redes sociales.

Imagen: da rienda suelta a tu creatividad con las aplicaciones gráficas de código abierto.

Google Apps: herramientas que facilitarán tu organización personal y la de tu empresa.

Smartphones y tablets: aprende a utilizar tus dispositivos y las aplicaciones más populares.

Programación y desarrollo: aprende a utilizar herramientas de programación.

IKASTAROAK / CURSOS

WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean
WhatsApp. Mensajería instantánea en tu Smartphone

26-27 16:00-18:00 Euskara

URRUNEKO HEZKUNTZA FORMACIÓN A DISTANCIA

Oinarrizko Interneta.

Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi

Internet Básico.

Aprende a navegar y enviar correos electrónicos

Smartphoneak eta tabletak.

Zure Android gailua erabiltzen ikasi

Smartphones y Tablets.

Aprende a utilizar tu dispositivo Android

Android-en mantentze-lanak.

Luzatu zure gailuaren bizitza.

Mantenimiento Android.

Alarga la vida de tu dispositivo.

berrittu

16. posta-kutxa
20130 Urnieta –Gipuzkoa–
www.urnieta.eus



PAPER EKOLOGIKOA
PAPEL ECOLÓGICO



Urnieta
udala

AGENDA

MAIATZA / MAYO



TEATRO DE CALLE: "POR HACER UN FAVOR"

Maiatzak 23
19:00, plaza San Juan

Hizkuntza: gaztelania
Sarrera: doan



BERTSO SAIOA: GIPUZKOAKO XLI ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Maiatzak 28
19:00, Sarobe

Hizkuntza: euskara
Sarrera: doan, gonbidapenarekin



FAMILIA IKUSKIZUNA "ADI, GRABATZEN, EKIN!"

Maiatzak 30
18:00, Sarobe

Hizkuntza: euskara
Sarrera: 3 euro

Urnieta

Natura, merkataritza,
ostalaritza, zerbitzuak

